


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Aplikazioa hau mota askotako jendearentzat erabilgarria izan ahal da, edozein pertsonak izan ahal dituen arazoak konpontzeko bidea ematen dituelako. Horregatik, bezero konkreturik ez duela esan ahal dugu.

Alde batetik, aplikazio askotan adinaren arabera banatu eta zentratzen dira aplikazioak. Kasu honetan adinak ez du garrantzia handirik aplikazioa erabiltzeko orduan, aipatu bezala, edonork izan ahal du aplikazio honen beharra.. Bestalde, askotan ikasketaren bat burutzen ari direnek edo lanean ari direnek erabiltzeko joera handiago izango dute. Honek ez du kentzen, beste edozein pertsonak erabili ezin duenik.

Azken finean, aplikazio honek mugikorrarekin pasatzen dugun denbora murrizteko helburua du, askotan ikasteko orduak edo lanerako orduak zapuzten dizkigutenak. Gainera, kontzentratzeko arazoak dituzten pertsonentzat gomendatua dagoen aplikazio bat izango da. Gaur egun, arazo hau geroz eta gehiago agertzen da gure egunerokoan. Hau, aurrerapenak ekarri du, entretenimendu pila bat dauzkagulako bertan. Honen ondorioz, askotan gure arreta galtzen dugu horrelako edozein aplikazioetan.



Aplikazioa hau ikasketetaren bat burutzen ari den jendearentzat diseinaturik dago. Kontzentrazio arazoak edota mugikorrarekiko dependentzia duten gazte, eta ez hain gazteak izango lirateke bezero interesgarrienak. Hauek izaten direlako egoera horri buelta ematea nahi izaten duten pertsonak. Aplikazioak betetzen duen funtzioa oso sinplea da, pantaila blokeatu eta mugikorraren erabilera eragozten du. Honekin, ikasketa prozesua hobetu eta ahalik eta etekin handiena ateratzea da helburua.

Azken finean, hau ikaste orduetatik etekina ateratzeko edo denbora librea daukagunean orduak aprobetxatzeko balio duen aplikazio bat da. Horregatik, funtzio hau betetzea nahi duen pertsona ororentzat izango da baliogarria ematen dugun zerbitzua. Bezeroak ez du zertan ezaugarri jakin batzuk izan behar.